

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren 1206/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 28koa. Honen bidez, aldatu egiten da Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren 674/2020 Foru Agindua, martxoaren 4koa, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 172/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak ebaluatuko dituzten epaimahaietako kideak izendatzen diren. Foru dekretu horren bidez, 2020ko ekitaldirako onartzen dira, batetik, beken oinarri arautzaileak eta deialdia, arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren modalitateetan, eta, bestetik, laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, bakarrik arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren modalitateetan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 172/2019 Foru Dekretuaren bidez, 2020ko ekitaldirako onartzen dira, batetik, beken oinarri arautzaileak eta deialdia, arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren modalitateetan, eta, bestetik, laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, bakarrik arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren modalitateetan.

Foru-dekretu horren 10. oinarrian ezartzen denez, modalitate bakoitzean epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da beka eta laguntzak jasotzeko aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa bete da.

2020ko martxoaren 12an, Bizkaiko Aldizkarian argitaratu zen (50. zenbakia) Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren 674/2020 Foru Agindua, martxoaren 4koa, zeinaren bidez aipatutako deialdian aurkeztutako eskabideak ebaluatzeaz arduratuko diren epaimahaietako kideak izendatzen diren.

Foru-agindu horretan, Leyre Ortueta andrea izendatu zen dantzako epaimahaiko kide izateko.

2020ko maiatzaren 26an, Leyre Ortueta andreak idazki bat aurkeztu du, non adierazten duen ezin dela izan epaimahai horretako kide, COVID-19ak sorturiko krisi sanitarioa kudeatzeko, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera dela eta ezarritako mugikortasun-murrizketen ondorioz.

Horrenbestez, aldatu egin behar da foru-agindu hori eta beste pertsona bat izendatu behar da epaimahaikide izateko. Horrez gainera, ordeko epaimahaikide bat izendatu behar da, aurrerantzean egon daitezkeen arazoetarako.

Horrenbestez, adierazitakoa dela bide, eta kontuan hartuta zer eskumen ematen dizkidaten Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauaren 39.i eta 67.1 artikuluek, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak eta arau horiekin bat datozen gainerako xedapenek, foru-agindu honen bidez:

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Onartzea Leyre Ortueta andreak aurkeztutako idazkia, non adierazten duen ezin dela izan, 2020ko ekitaldirako beken eta laguntzen deialdian, dantzaren modalitatean aurkeztutako eskabideak ebaluatzeaz arduratuko den dantzako epaimahaiko kide.

Bigarrena: Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren martxoaren 4ko 674/2020 Foru Aginduaren xedapenetako lehena aldatzea; hain zuzen

*Honako hau dioen lekuan:*

Dantzako Epaimahaia

— Epaimahaiburua:

- Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia).

— Ordezko epaimahaiburua:

- Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia).

— Epaimahaiko kideak:

- Jon Ugarriza Rodríguez (Koreografoa).
- Leyre Ortueta (Dantza klasikoa).
- Adriana Álvarez Rui-Wamba (Dantza garaikidea).
- Daniel Doña (Garaikidea eta flamenkoa).

Hau esan behar du

Dantzako epaimahaia

— Epaimahaiburua:

- Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia).

— Ordezko epaimahaiburua:

- Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusia).

— Epaimahaiko kideak:

- Jon Ugarriza Rodríguez (koreografoa).
- Adriana Álvarez Rui-Wamba (dantza garaikidea).
- Daniel Doña (garaikidea eta flamenkoa).
- Leyre Castresana Martín (dantza klasikoa).

— Ordezko epaimahaikidea:

- Iker Murillo Badiola (dantza klasikoa).

Hirugarrena: Foru-agindu hau Leyre Ortueta andreari, Leyre Castresana Martín andreari eta Iker Murillo Badiola jaunari jakinaraztea eta beronen berri ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari, dagozkion ondorioetarako.

Laugarrena: Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

AZKEN XEDAPENA**Azken xedapen bakarra. — Indarrean jartzea**

Honako foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean

Bilbon, 2020ko maiatzaren 28an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA